



## ***Nahia Quincoces eta Iñigo Martínez de Albornoz mendi eskiko Euskal Herriko bakarkako txapelkun Causiat Extreme proban***

**2018ko otsailak 6.** Negu baldintza gogorretan, haize, laino, eta hotz giroan, jokatu zen larunbatean Causiat Extreme proba Candanchun, 2018ko Euskal Herriko bakarkako Txapelketa, Euskal Herriko Kopako lehen proba eta baita Espainiako bakarkako Txapelketa ere.

Nahia Quincoces eta Iñigo Martínez de Albornozek jantzi zituzten Euskal Herriko Txapelak maila nagusian. Euskadi eta Nafarroako atleten emaitzak hartu ziren kontuan Euskal Mendizale Federazioak babestutako Txapelketan.

### **Causiat Extreme – EH Txapelketa 2018 BAKARKAKOA**

#### Senior W

1.Nahia Quincoces (EMF)	1or 01:49
2.Maite Maiora (EMF)	25:03ra
3.Igone Campos (EMF)	25:47ra

#### Senior M

1.Iñigo Martínez de Albornoz(EMF)	1or 35:16
2.Pablo Oderiz (NFM)	5:21era
3.Igor Alzelai (EMF)	11:36ra

Ikus beste kategorietako [sailkapenak](#) esteka honen bidez.

Denboraldiko lehen txapelketa honen ostean, Bertikalean eta Taldeka jokatu dira hurrengoak, Bandres-Karolo (otsailak 18) eta Regil Zeharkaldia (martxoak 10) ondoz ondo.

Causiat Extreme **Euskal Herriko Kopako** lehen proba ere izan zenez, hango sailkapena da behin behinean balio duena.

**Espainiako bakarkako txapelketa** ere izan zen, eta **Erkidegoka Euskadi bigarren** sailkatu zen bertan, Madrilgo Erkidegoaren ostean. Mailaka bi emaitza nabarmendu: **Nahia Quincoces** bigarren izan zen Mireia Miro katalanak irabazitako proban. Espainiako bertikalen txapelketan ere zilarra irabazi zuen Quincocesek duela hiru aste, beraz emaitza bikainak metatzen ari da leketxarra. **Iñigo Martínez de Albornozek** ere irabazi zuen domina bat, Espoir mailan zilarrezkoa, eta maila nagusian orotara zortzigarren izan zen donostiarra, proban bederatzigarren, denboraldi honetako bere lehen proban.

Ikus Espainiako Txapelketen [sailkapenak](#).

Eguraldi baldintzek gogortu arren proba bikain antolatu zuten Causiat Extremeko arduradunek, eta azpimarratzekoa izan zen parte hartze handia, 300dik gora atletekin, horietatik **118 erkidegokoak**.



### EMF-Euskal Herriko Txapelketak 2018

Banakakoa: [Causiat Extreme](#) (otsailak 3)

Bertikala: [Bandres-Karolo Memoriala](#) (otsailak 17)

Taldeakakoa: [Regil Zeharkaldia](#) (martxoak 10)

### EMF-Euskal Herriko Kopa 2018

Lau probek osatuko dute 2018ko Euskal Herriko Kopa: [Causiat Extreme](#) Candanchun (otsailak 3), [Bandres-Karolo Memoriala](#) Izaban (otsailak 17-18), [Alti-Toy Ternua](#) Luz Ardiden-Pic du Midi-Tourmalet-en (martxoak 3-4), eta [Regil Zeharkaldia](#) Europako Haitzean (martxoak 10).

	Proba	EH Txapelketa	EH Kopa	Esp Txapelketa	Munduko Kopa
01-13	Open Vall de Boí Boí Taüll			Bertikala	
01-14	Open Vall de Boí Boí Taüll			Sprint	
01-27	World Cup Andorra Font Blanca				Open Banaka eta Bertikala
02-03	Causiat Extreme Candanchu	Banakakoa	1.a	Banakakoa	
02-17	Bandres-Karolo Izaba				
02-18	Bandres-Karolo Memoriala Izaba	Bertikala	2.a		
03-03	Alti Toy Luz Ardiden				
03-04	Alti Toy Luz Ardiden		3.a		
03-10	Andres de Régil Europako Haitza	Taldeka	4.a		
03-17	Rally V.de Aragón Candanchu			Taldeka	



Mendi Eskiko Euskal Taldea



EMF-FVM